

Isuri Gutxiko Eremuak % 31 murriztu du NO₂-a Donostiako erdigunean sei hilabete

2024aren aldean % 19 jaitsi da nitrogeno dioxidoa, 2025 osoan ez da eguneko muga behin ere gainditu eta aurreko urteetan batez beste sei egunetan gainditzen zen.

Isuri Gutxiko Eremua (IGE) indarrean sartu eta urte erdira, airearen kalitatean izan duen eraginaren emaitzak aurkeztu ditu Udalak. Datuen arabera, nabarmen hobetu dira nitrogeno dioxido (NO₂) mailak hirigunean, bereziki Easo inguruan, han baitago airearen kalitatea monitorizatzeko estazio ofizial bakarra, Isuri Gutxiko Eremuaren barruan dena.

2025eko martxoaren 14an jarri zen indarrean Donostiako IGEa, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko 7/2021 Legeak mugikortasunaren ondoriozko isuriak murrizteko neurriak hartzeko agintzen baitie 50.000 biztanletik gorako udalerriei. Neurri hori Europako Itun Berdean eta airearen kalitateari buruzko zuzentarau berrian ere badago, eta zuzentarau horrek estutu egiten ditu nitrogeno dioxidoaren eta airean izaten diren beste partikula kutsatzaile batzuen eraginpean izateko mugak.

Emaitza nagusiak

Ingurumen Osasun eta Jasangarritasun Sailak Easoko estazioan hartutako datuetan oinarrituta egindako analisiek erakusten dutena da:

- 3,93 µg/m³ murriztu dela NO₂-a 2024aren aldean (–% 19),
- 7,33 µg/m³ 2021–2024ko batezbestekoaren aldean (–% 31),
- 2025ean ez dela gainditu 50 µg/m³ eguneko muga (2024an 1 izan zen, eta aurreko urteetan 6, batez beste), eta
- Ategorrietan eta Tolosa hiribidean lehen bezala edo pixka bat gora egin duela NO₂ mailak eta, beraz, Easoko jaitsiera zuzenean IGEari egotzi daitekeela.

PM10 eta PM2,5 partikulak pixka bat igo egin dira 2024aren aldean, baina joera orokorra beheranzkoa da oraindik ere. Partikula horiek iturri ugari dituzte, eta, beraz, horien bilakaera kanpoko faktore batzuen mende dago: Saharako hautsa eta industria-jarduera, adibidez.

Iñigo Garcia Villanueva Aniztasuneko, Inklusioko eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkariek positibotzat baloratu du lehen balantze hau: "IGEa ezartzeak mugarri bat jarri zuen gure ingurumen-politikan. Sei hilabete pasa eta gero, norabide egokian goazela esaten dute datuek: nabarmen murrizten ari gara osasunerako oso kaltegarria den kutsatzaile bat, ibilgailuen trafikoari zuzenean lotuta dagoena».

Prentsa oharra

Nota de prensa

Herritarrengan duen eragina

Isuri Gutxiko Eremuaren lehen sei hilabeteetan, sarbide berezia izateko 109 eskaera izapidetu ditu Donostiako Udalak, bi kategoriatako sarbideak:

- IGEX: banakako eskaerak, inguruabar pertsonal espezifikokoak (bizilekua, mugikortasun murriztua, mediku beharrak eta abar) alegatzen dituzten pertsona fisikoek aurkeztuak.
- MAKU: eskaera kolektiboak, hiru matrikula baino gehiagorako baimena behar duten erakunde, enpresa edo taldeenak.

Beraz, 106 eskaeretatik 95 eskaera indibidualei dagozkie (IGEX) eta 12 eskaera kolektiboak (MAKU).

Banakako eskaera horietatik, 29 baimendu egin dira, 21 ukatu, 24 artxibatu, 9 zuzentzeko zain daude, beste 10 osatu gabe daude eta 2 Mugikortasun Sailera bidali dira.

Eskaera kolektiboetatik 2 baimendu egin dira, 2 ukatu, 3 artxibatu, 2 zuzentzeko zain daude eta beste 3 osatu gabe.

Iñigo Garciak neurriaren dimentsio soziala azpimarratu du: «IGEa ez da mugikortasun-neurri bat bakarrik; osasun publikoaren aldeko ekintza ere bada. Kolektibo kalteberak babesten ditu bereziki: haurrak, adinekoak edo arnas gaixotasunak dituztenak. Kutsadura gutxiago izateak, denok hala denok ere bizi-kalitate handiagoa izatea dakar».

Klimaren jarraipena egitea eta joerak finkatzea

Ingurumen Osasun Sailak gogorarazi du urteko aurreneko zortzi hilabeteetakoak bakarrik direla datu horiek, eta, beraz, behin-behinekotzat hartu behar direla. Baldintza meteorologikoek nabarmen eragiten diote kutsatzaileak sakabanatzeari, eta, hala, urteko garai guztiek ez dute berdin balio IGEaren eta horrelako neurrien inpaktua ebaluatzeko.

Udaberrian eta udan, esate baterako, tenperatura altua eta eguzki-erradiazio handia izaten da, eta ozono troposferikoa errazago sortzen da horrela. Hori dela eta, zailagoa izaten da airearen kalitatearen adierazleak hobetzea; hala diote AEMETek eta Europako Ingurumen Agentziak ere. Hala eta guztiz ere, orain arte lortutako datuak positiboak dira, batez ere nitrogeno dioxidoari (NO₂) dagokionez, eta horren jaitsierarik handiena Easoko estazioan izan da, IGEaren perimetroaren barruan.

Ingurumen Sailak adierazi du, orobat, udazkenean ere begiratu behar zaiola datuen bilakaerari –airearen kalitateak hobera egitea aurreikusten baita udazkenean–, eta, bereziki, negua pasatutakoan izango den bilakaerari, urte

Prentsa oharra

Nota de prensa



sasoi horretan baldintza atmosferikoak hobeak izaten baitira kutsatzaileak sakabanatzeko. Orduan bakarrik eduki ahal izango da serie konparatibo sendoago bat, ikusitako joerak finkatu eta IGEak hirian duen egiturazko inpaktua zehaztasun handiagoz baloratu ahal izateko.

"Airearen kalitatea hobetzeko erronka ez da hor amaituko", gaineratu du Iñigo Garciak. "IGEa funtsezko tresna da; baina, horrekin batera, izango dira beste neurri batzuk ere (mugikortasun jasangarria, garraio publikoa eta bizikletan eta oinez ibiltzea sustatzea, adibidez), eta baita herritarrak kontzientziazteko kanpainak ere. Horrela bakarrik eraiki ahal izango dugu hiri osasungarriagoa eta bizigarriagoa hurrengo belaunaldientzat".